

Artzain Ameriketan


Sei urtez ibili zen Martin Irazoki Oiartzunen bizi den artzaina; omendu egin dute [10]



Tantra, oreka bilatuz

Sexualitatea ulertzeko beste modu bat dakar tantrak. Irunen ikastaroa ematen dute [6-7]

OARSO BIDASOKO HITZAREN astekaria, Ostirala, 2012ko urriaren 5a, 71. zenbakia



[REBEKA PARRAS]

Bigarren mailako protagonista

Miguel Jose Garmendia jeltzalearen hamaika istorio eta bizipen bildu ditu Txema Arenzanak 'De la guerra al exilio' liburuan [4-5]

«Gerra egin zuen jendea kasta berezikoa da»

Txema Arenzana Historia zaletua

‘De la guerra al exilio. Miguel Jose Garmendia Aldaz’ liburua argitaratu du Arenzanak. Historian bigarren mailako pertsonaia izan zela dio, baina «protagonista bera gainditzen duena».

Eihartze Aramendia
Errenteria-Oretea

Bi urte eta erdi eman ditu Txema Arenzanak (Najera, 1950) buru-belarri ideiak, dokumentuak, gogoetak eta eskutitzak orrietara pasatzen. Bi urte eta erdi Miguel Jose Garmendia jeltzalearen nondik norakoak ikertzen, barruraino sartu arte: «Egunero-egunero pertsonaiarengan pentsatzen egoten nintzen».

Ekonomialaria izanda, nola bukatu duzu historiako liburu bat idazten?

Istoria Nafarroako Piriniotako herri txiki batean jaio zen, Orotz-Betelun. Bertan jaio zen, hain zuzen, gizon hau [Miguel Jose Garmendia]. Ideia honen atzean Piarres Xarriton dago. Berak Idoia Mendia alkatearekin harremana du eta Xarritonek komentatu zion herrian pertsonaia interesgarri bat jaio zela, bere familiako bat Ipar Euskal Herrian bizitu izan zela eta interesgarria izango litzatekeela ikertzea.

Orotz-Beteluko alkateak zuri esan zizun Garmendiaren arrastoa jarraitzeko?

Aurretik gauzak eginak genituen; besteak beste, herriko argazki zaharrak bildu genituen. Ez nuen berehalakoan baietza esan. Askok pentsatu ondoren 2010 urtearen hasieran buru-belarri sartu nintzen honetan, ezertxo ere jakin gabe. Ez nekien zertan sartu behar nuen ere! Eskerrak laguntza ona izan dudana ondoan; nik uste liburu interesgarria atera dela.

Hiru aurkezpen egin dituzu, horietako bat Errenteria-Oretea. Loturarik bazuen zure pertsonalak herriarekin?

Bere aitona, Rafael Garmendia, Orotz-Betelun jaioa, Errenteriara etorri zen. Merkataria bezala aritu zen lanean eta Dolores Lekuonarekin ezkondu zen. Bi herrien arteko beste loturarik ere badago: La Papelera Española faktoria bat izan zuen Orotz-Betelun industrializazio garaian. 1912an itxi zuten, baina Irati ibaiko zentralen jabe zen, era berean. Oraindik kotserbatzen da sare elektrikoa, baina ez du funtzionatzen. 70 kilometrokoa da sare hori; Orotz-Betelun eta Errenteriako Santa Klarako biribilgunean posteak daude. Lotura pertsonalak ere badaude: nire amaginarreba orotarra zen eta herri honetara etorri zen bizitzera. Hemen ezagutu nuen nire emaztea. Hori da testuingurua, horiek izan dira liburua idaztea ahalbidetu duten kasualitate edo nondik norakoak.

Ezagutu dezagun orain Miguel Jose Garmendia zertxobait.

Bere aita nekazari aberats bat zen eta bere ama Aoizen lur asko zituen emakumea. Nafarroako Piriniotako mendiko aristokraziariko ginateke, nolabait. Bost anai-arreben artean gazteena zen Miguel Jose. Zuzenbidea ikasi zuen eta berehala Santiagoko Cunchillosen bulegoan hasi zen lanean, EAJko buruzagietako bat zen Cunchillos. Horrez gain, musikaria izan zen, txistularien elkarteko idazkaria... 1932an euskal

estatutuaren aldeko kanpaina egin zuten eta mitin asko eman zituen.

Gazte hasi zen, beraz, politikan.

Oso gazte. Garai errepublikano honetan, 1934an Asturiasko matxinada izan zen. Euskadin ez zuen bereziki ondorioz izan, Eibarren izan ezik. 170 langile baino gehiago atxilotu zituzten, Iruñeko espetxera eramane zituzten eta gerra kontseilua egin zieten. Langile horiek denfendatzeko, erakunde bat sortu zuten Victoria Kent buru zela. Horretan EAJ inplikatu egin zen Cunchillosen bulegoaren bitartez, eta hor dugu Miguel Jose Garmendia.

Garmendia aholkulari juridiko bezala jarri zuten. Noliz izan zen hori?

1936ko urriaren hasieran lehen euskal gobernuak sortu zuten. Errepublikak estatutuari zin egin zion eta errepublikaren alde jarri zen. Barne Saileko aholkularitza Telesforo Monzonek hartu zuen eta Miguel Jose aholkulari juridiko bezala jarri zuten. 1930etik 1945era bitarte, bere oinarritzko garaian, hainbat postu izan zituen. Hilabete batzuk lehenengo golpe militarra izan zen; berak ihes egin zuen eta Orotz-Betelura joan zen, eta bertan Santiago Cunchillosekin elkartu zen. Orbaizetatik muga pasa eta Ipar Euskal Herrira joan ziren. Ontzi bat hartu eta Zumaiara iritsi ziren, Gipuzkoako guda oinera etorri zen. EAJ Eusko Gudarostea eraikitzen hasia zen ordurako eta Miguel Josek milizien zuzendaritzan ordezkatu zuen Manuel Irujo.

Lehen gobernu horretan aholkulari juridiko bezala zer lan egin behar izan zuen?

Gobernuak izan zuen lehen enbolatua oso ona izan zen. Espiotza sare nazi bat deskubritu zuten, [Wilhelm] Wakonigg buru zuena. Zein da Wakonigg? Industrial alemaniar bat; gerora ikusi zen industrial alemaniarrek agente naziak zirela. Berari [Garmendiari] tokatu zitzaion espiedientea prestatzea, atxilotu egin zituzten eta fusilatzetan bukatu zuen Wakoniggek. EAJk hartu behar zuen erabakia oso serioa zen; izan ere, Wakonigg [Luis] Ortuzarren alabarekin ezkondu zegoen, Ortuzar Ertzaintzaren buru zen 1936an. Dena den, fusilatu egin zuten.

Espetxeetako ikuskatzailerik ere izan zen.

Bete zuen kargurik nabarmenena izan zen. Errepublikan EAJk bere babesa eman zuen unetik, Errepublikako gobernu guztietan EAJren ordezkapen bat egon zen. 1937an, Manuel Irujo justizia ministro izendatu zuten eta Miguel Joseri espetxeetako ikuskatzailerik orokor izateko kargua eskaini zioten. Kargu garrantzitsua, izan ere, EAJ katolikoa da, eta inguruan anarkistak, komunistak... ditu garai honetan,



[REBEKA PARRAS]

eta kartzelak alderdi edota sindikatuen feudoak dira.

Liburuan Katalunia ere aipatzen duzu. Zertan ibili zen han?

1938-39 urteetan egon zen Katalunian, mugen buru bezala. Figueresen (Girona, Herrialde Katalanak) momentu batean hiru gobernu elkartu ziren. Frantziarako pasoa antolatu zuen Kataluniako mugatik eta Parisen instalatu zen. Han Parisen Euskadiko Gobernuak [Eusko Jaurlaritza orduan] immigrazio buru izendatu zuten eta lan horretan jendea aberriratzeko egon zen. Tropa naziak Parisen sartu zirenean handik atera zen. EAJ oso gaizki zegoen momentu horretan: Agirre lehendakaria desagertu egin zen urte eta erdiz, Irujo Londresen zegoen... Naziak artxiboak aurkitu zituzten, ez zuten gune neutroa materiala eramaterik lortu eta horrek ondorio garrantzitsuak utzi zituen.

Koadrila berezia omen zuen Garmendiak: frankistak, komunistak...

Gerra egin zuen jendea kasta berezikoa da, guk ezagutu ez duguna. Idiosinkrasia eta

kontzeptu desbedinak zituzten eta horietako bat laguntasun kontzeptua da. Bere koadrilako guztiek ikasi zuten, guztiak ziren Nafarroako aristokraziaren parte. Tomas Garikano Goñi barne ministro izan zen Francorekin; Estanis Aranzadi EAJkoa baina erreketetara pasata, Ruiz de Galarreta, Usechi, Jesus Monzon komunistak, Lizartza anaiak... Denek zin egin zuten euren laguntasuna guztiaren gainetik jarriko zutela, hori zer pasatuko zen jakin aurretik, nahiz eta Lizartza anaiak golpean egon ziren.

Laguntasun hori muturreraino eraman zuten. Miguel Jose exilioan egonda ere Tomas Garikanok Madrileko ministerioan hartu zuen. Jesus Monzon alderdi komunistakoei heriotzara kondenatuta zuten, stalinismoaren linea ofizialeko desbiazionista bat zelako eta faxistek salbatu egin zuten.

Garmendiarentzat Nafarroa defendatzea obsesio zela aipatu zenuen aurkezpenean.

Miguel Joserentzat Euskal Herria oso ga-

«Espetxeetako ikuskari orokor izendatu zuten 1937an; bete zuen kargurik nabarmenena»

«Espioitza sare nazi bat deskubritu zuten, Wilhelm Wakonigg buru zuena»

rrantzitsua izan zen. Nafarroaren papera, beste euskal lurraldeekin, guztia izan zen berarentzat, bere bizitzaren bizigarria izan zen. 1940an, gerra ondoren, Nafarroaren aldeko komisioak sortu ziren, negoziak egon ziren... horietan egon zen. Negozio kontuetarako eta hona etorri zen Mexikotik, baina inoiz ez zen etorri gertatzeko.

Noiz iritsi zen Mexikora?

1941eko uztailean Tapachulara (Chiapas) ailegatu zen. Londresera itzultzeko espe-

rantza zuen eta mundu gerran sartzekoa, baina egunerokoak Mexikon toki bat egitera behartu zuen. Mexikoko erbesteratzearena liburu honetako hutsuneetako bat da. Manuel Irujo Miguel Joserekin izan zuen postazko harremana azaltzen dut eta harreman hori 1973. urtera arte iristen da. Miguel Jose, ordea, 1986an hil zen. Errenterian egin nuen aurkezpenean gizon batek hitza eskatu eta Miguel Jose Mexikon ezagutu zuela esan zuen. 'Txema mesedez, hau ikertu egin behar duzu, oso interesgarria da eta', esan zidan.

Liburuak bigarren zatia izango du orduan?

Bigarren zati baterako eman dezake. Mexikoko erbesteratzearenaz gain, zerbait bukatu gabe dago ere. Indalecio Prietok SIM (Servicio de Investigación Militar) sortu zuen eta berak dioenez, hori esan didate behintzat, SIMeko buru izan zen Garmendia. Nik uste ez zela izan, baina EAJko zerbitzuei oso lotua egon zenez, beharbada zerbitzu sekretuen mundu ilun horretan sartua egongo zen.

